


Euskal Kultur
Erakundearen
laguntzaz egindako
gehigarria

Euskal kantua indartzeko sail berria

Betidanik senpertarrek kanturako fama haundia ukan dute. Den estakuru ttikiena aski zen kantuz hartzeko. Ez zen ez denbora haietan "xaramela" beharrik. Duela 20 bat urte Senpereko errexiñolak mututu zauzkigu. Egun batez, agian deneri esker, xoria piztuko delakoan, TTIPI-TTAPA egiten dugunei iduritu zauku beharrezkoa etxetan diren kantu xaharrak biltzea eta zabaltzea. Segur gira han hemenka badirela kantu horiek "xaramelak" gordetzen ez dituenak edo berdin baten batzuek gozoz oraindik dakizkitenak.

TTIPI-TTAPA prest legoke kantu horien agertzeko edo berdin zintan hartzeko, egun batez liburuxka bat egiteko asmoz. Okasionea emanik, Olandeiko Fifinek hasten du saila "Nik ere badut fortuna baina ez zuk emana" kantuarekin.

ttipi-ttapa
Oxtikenea
SENPERE



Nik ere badut fortuna baina ez zuk emana

- 1 Mila bederatzi ehun eta hogeita batean
Kantuz hastera noa sujeten gainean
Uso xuri pullita Senpere herrian
Airetan dabilana joan dan aspaldian.
- 2 Senperen sortu eta Amotzen hazia
Uso hontaz ederki mintzo da jendea
Ez da arras tontoa erne du begia
Berak nahasia du Kartiera guzia.
- 3 Amerikano horietan du bere fantesia
Uste baita horiekin hobeki izaitea
Plazetara joateko jaun gisa best(tu)a
Bainan etxean dute maiz gerla gorria.
- 4 Amerikano zahar oi tripa haundia
Aise enganatu duk inoxent trixtea
Lehen ere ibili duk zonbeit komedia
gizon zahar batentzat ez duk balentria.
- 5 Amerikano hori bihar da partitzen
Eta uso gaixoa trixterik gelditzen
Gaixoak holakorik ez zuen pentsatzen
Haurrak ere erorka zutik du ikasten.
- 6 Orain adrezatzen naiz aitameri
Kasu egin bezate uso gazteari
Nik uzten diot orain nahi duenari
Huntan erraiten diot adios Majiri.

Olandeiko
Fifin

